


# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Habbakuk, proiektu izoztua



WWW.NEOTEO.COM



WWW.PHOTOBUCKET.COM

Ezkerrean, izotzeko ontzia sortzeko bidean, Kanadako Patricia aintziran egin zuten prototipoa. Alboan, izotzeko itsasontzi erraldoiaren planoak; Nimitz hegazkin-ontziak eta Yamato korazatuak ñimiñoak dirudite haren ondoan.

LONDRES, 1942. Bigarren Mundu Gerra betean, alemaniarren nagusitasuna, japoniarren mehatxuak areagotua, gero eta nabarmenagoa zen Ozeano Atlantikoan. Nazien teknologia aurreratuaren aurkia borrokatu behar ziren aliatuak, eta Winston Churchill edozein proposamen entzuteko prest zegoen. Geoffrey Pykeren proiektuaren berri izan zuenean, berau gauzatzeko laguntza osoa ematea erabaki zuen. Inoizko itsasontzirik handiena eraikiko zuten, izotzez! Makina berriak eraikitzeak altzairurik ia ez zen geratzen Europa osoan, baina izotza nonahi topa daiteke eta flotatu egiten du.

Hala, Habbakuk proiektua abian jarri zuten. Baina izotzaren propietateak hobetu behar zituzten, gogorragoa eta konpontzen errazagoa izan behar zuen etsaien erasoei aurre egiteko. Izotza egur orez nahasi zuten eta material berriari Pykrete esan zioten proiektuaren sortzailearen omenez. Baina izotzak, mugitzean, fluxu plastikoa deritzon fenomenoaren eragiten du eta horrek ontzia hondoratu zukeen. Hori saihesteko materialak  $-16$  gra-

dutan egon behar zuten eta horrek hozte sistema konplexua eskatzen zuten.

Oztopoak oztopo, Kanadako Patricia lakuan  $9 \times 18$  metroko prototipoa eraiki zuten. Emaizta positiboa izan zen. Kanadako gobernua izotzeko hegazkin-ontzia 1944an prest izango zela adierazi zuen. Baina benetako ontzia 610 metro izango zen luze, kroskoak hamabi metroko lodiera izango zuten, 300.000 tona egur ore, 25.000 tona zuntz isolatzaile, 35.000 tona egur eta 10.000 tona altzairu beharko ziren hura egiteko... Kostuak izugarri egin zuten gora eta, gainera, fluxu plastikoak eta beste arazo batzuek ez zuten oraindik konponbiderik.

Pyke berak sortutako proiektutik egotzi zuten eta handik gutxira bere buruaz beste egin zuen. 1943an proiektua garestiegia eta bideraezina zela ondorioztatu zuten ingeles armadako arduradunek eta proiektua bertan behera geratu zen. Patricia aintziran utzitako prototipoak proiektuak baino gehiago iraun zuten, baita gerrak berak baino gehiago ere; hiru urda behar izan zituen erabat urtzeko.

## Arrastoak

### Flandestar urrezko aroa Bilbon

URREZKO AROA. HOLANDAKO ETA FLANDESEKO PINTURA izeneko erakusketa izngo da Bilboko Guggenheim museoan urtarrilaren 23ra bitartean. Frankfurteko Städel Museumen bildumako 130 lan aukeratu dituzte, XVII. mendean Holandako nahiz Flandeseko maisuek eginak, hala nola

Vermeer-ek, Hals-ek, edo Rembrandt-ek (eskuinean, lan horietako bat, Jan Vermeer van Delften *Geografoa*, 1669). XVII. mendean itsas merkataritzaren loraldiaren ondorioz, burgesiaren gustu eta balio berriak ezarri ziren eta horiek agerian utzi zituzten margolari horiek.



JAN VERMEER